



**Gipuzkoako Foru Aldundia**



**Gipuzkoako Futbol Federazioa**

## **22.ZIRKULARRA**

**2019-20 Denboraldia**

### **1. MAILA INFANTILEN LEHIAKETA**

Gipuzkoako Futbol Federazioaren laguntza teknikoarekin eta jokalarien heziketa prozesuaren kalitatearen maila igotzeko interesa duen Real Sociedad klubaren lankidetzarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiak, berari dagokion esparruan, Gipuzkoako Eskola Kiroleko Jardueren Programaren barnean dagoen 1. Maila Infantil lehiaketa antolatzen du.

#### **1) KLUB PARTAIDEAK**

**I TALDEA:** GURE TXOKOA K.K.E.; DUNBOA EGUZKI C.D.; HONDARRIBIA F.E. "A"; BETI GAZTE K.J.K.E.; BEHOBIA C.D.; SAN MARCIAL C.D.; LANDETXA K.T. eta MARIÑO C.D.

**II TALDEA:** BETI ONA C.D.; OIARTZUN K.E.; TOURING K.E.; ORERETA KAFAA F.C.; HONDARRIBIA F.E. "B"; ALLERRU K.J.K.E.; TRINTXERPE C.D. eta PASAIA K.E.

**III TALDEA:** MARTUTENE "B" K.E.; ASTIGARRAGAKO MUNDARRO FKE; SPORTING HERRERA; VASCONIA "A" C.D.; ANTIGUA LUBERRI KE; EKINTZA K.E.; LENGOKOAK "A" K.E. eta SANSE "B"

**IV TALDEA:** SANTO TOMAS LIZEOA K.E.; MARTUTENE "A" K.E.; VASCONIA "B" C.D.; SANSE "A"; AÑORGA K.K.E.; LENGOKOAK "B" K.E.; MARTUTENE "C" K.E. eta AMARA BERRI K.E.

**V TALDEA:** HERNANI C.D.; BILLABONA K.E.; DANENA K.E.; EUSKALDUNA S.D.; URNIETA K.E.; TOLOSA "A" C.F.; TOLOSA "B" C.F. eta ARALAR INTXURRE K.K.E.

**VI TALDEA:** UDARREGI USURBIL "A" F.T; OSTADAR "A" S.K.T.; INTERNACIONAL C.D.; OSTADAR "B" S.K.T.; UDARREGI USURBIL "B" F.T; TEXAS LASARTEARRA C.F. eta ZARAUTZ "B" K.E.

**VII TALDEA:** ORDIZIA K.E.; BEASAIN S.D.; UROLA URRETXU "B" K.E.; UROLA ZUMARRAGA "A" K.E.; IDIAZABAL K.E.; LAZKAO "A" K.E.; LAZKAO "B" K.E. eta AIZKORRI GOIERRI F.T.

**VIII TALDEA:** ZARAUTZ “A” K.E.; ZESTOA K.B.; ZUMAIKO F.T.; ANAITASUNA C.D.; LAGUN ONAK “A” C.D.; IKASBERRI K.E.; ELGOIBAR TXURIA C.D. eta LAGUN ONAK “B” C.D.

**IX TALDEA:** BURUMENDI F.T.; URKI “A” C.D.; EIBARTARRAK F.T.; URKI “B” C.D.; AMAIKAK BAT K.E.; ILINTXA S.D.; ELGOIBAR GORRIA C.D. eta SORALUZE C.F.

**X TALDEA:** ANTZUOLA “A” K.E.; ANTZUOLA “B” K.E.; ARRASATE “B” C.D.; ARETXABALETA “A” U.D.A. K.E.; ARETXABALETA “B” U.D.A. K.E.; BERGARA K.E.; y ALOÑA MENDI K.E.; ILINTXA S.D. eta ARRASATE “A” C.D.

## **2) LEHIAKETA SISTEMA**

**1. FASEA:** Hamar taldetan banaturik, puntuen bidez eta bi itzulietara jokatuko da 14 jardunalditan.

### **2. FASEA:**

#### **A) Txapeldunen Fasea:**

Talde bakoitzeko bi lehenak (2x10=20) eta hirugarren lau hoberenak - lortutako puntuak eta jokatutako partiden arteko ratio hoberena daukatenak izango dira bigarren hoberenak - sailkatuko dira. 24 ekipo hauek sei ekipoko lau taldetan banatuko dira Txapeldunen Fase hau jokatzeke, bi itzulietara (10 jardunaldi).

Talde bakoitzeko lehenengo sailkatuak (1x4=4) partida bakarrera finalerdia jokatuko du (2020-05-17). Finalerdi horiek, Euskadiko Futbol Federazioaren araudiaren 101. Artikuluan azaltzen denaren arabera onuradun ateratzen denaren zelai propioan jokatuko dira. Irabazleek Gipuzkoako Eskolarteko Finala (2020/05/24) jokatuko dute, partida bakarrera eta zelai neutralean.

Maila honetako Txapelduna Gipuzkoako ordezkaria izango da Euskadiko Eskolarteko Txapelketan (2020ko maiatzaren 30 eta 31an eta ekainaren 6ean)

#### **B) Gipuzkoa Kopa:**

Besteek Gipuzkoako kopa jokatuko dute.

## **3) IRAUPENA ETA ALDAKETAK**

70 minutu eta 35 minutuko bi zati. 10 minutuko atsedenaldea egongo da eta **zazpi aldaketa**. Errendimendu hastapeneko lehiaketa honen heziketa izaera dela eta, aktan azaltzen diren jokalariek guztiak partidan ahal den denbora gehiena jokatu beharko dute. Zelai jokora sartzen den azken jokalaria ezingo du 20 minutu baino gutxiago jokatu eta ezingo da zelai jokoan sartu partiduaren bigarren zatiaren 15. minutua baino beranduago.

Arau hau betetzen ez bada eta aurkako taldearen aurretiko salaketa bat baldin badago, partidua galdutzat emango da.

#### **4) DEIALDIA**

Batzar Nagusian hartutako akordioa jarraituz, **taldea osatzen duten jokalarien %80a deialdian eta partidari bertan egon beharko da. Arau hau betetzen ez bada eta aurkako taldearen aurretiko salaketa bat baldin badago, partidua galdutzat emango da salatuta izan den klubak aurkezten dituen ezinbesteko kausak behar bezala justifikatuak eta frogatuak izan ezean.**

#### **5) JOKALARIAK**

2006 eta 2007 urteetan jaiotako jokalariek.

#### **6) LIZENTZIAK**

Lizentziak Gipuzkoako Foru Aldundiaren Eskualde desberdinetan dituen bulegoetan bideratuko dira

Lehiaketaren izaera kontutan izanda, azterketa medikua eta mutualitatea aukerakoa izango da, baina bai gomendagarria edozein kirol jarduerak bere baitan dituen baldintzak prebenitzeko.

Talde bakoitzak, gehienez 20 lizentzia izango ditu, eta denboraldian zehar fitxa daukaten haurrak 22 baino gehiago ez dira izango.

#### **7) DIZIPLINA ARAUA**

Eskola kirolari buruzko 2013ko uztailaren 23ko 391/2013 Dekretuarekin bat etorriaz, Institutio Foralak eginkizunak eskuordetzean ematearen ondorioz diziiplina ahalmena honela gauzatzen da:

- a) Lehen auzialdian, lehiaketen garapen teknikoaz arduratzen den kirol federazioko diziiplina batzordeak.
- b) Bigarren eta azken auzialdian, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak. Honen ebazpenek amaiera emango diote administrazio bideari eta, araua jurisdikzionaleri jarraiki, horien aurkako errekurtsioa aurkez daiteke.

#### **8) KADETE MAILAN JOKALARI INFANTILEN PARTE HARTZEA**

Onartuko da, ezinbesteko egoeratan, bigarren urteko jokalariei infantilen parte hartzea kadete mailan, ondorengo izapideak alde aurretik betetzen badira:

- Gipuzkoako Foru Aldundiari eskaera arrazoitua, proposatutako jokalariei zerrendarekin.
- Eskolarteko infantilen, kadete mailan parte hartzeko Foru Institutiotik baimena izatea.
- Azterketa Medikuaren ziurtagiria aurkeztea
- Mutualitatean afiliatua egotea
- Dagokion lizentzia federatiboa tramitatzea.

## **9) PARTE HARTZE BIKOITZ HONEN ARAUZKO ONDORIOAK**

7. puntuan aipatzen diren baldintzak betetzen badira, azken urteko infantil jokalariek segidako goi mailan (kadetea) parte hartu dezakete, **baina talde infantilean bidegabeki jokalarizerrendan sartu izan dela kontsideratuko da**, aste buruan bi partiduetan parte hartuko balu nahiz eta egun ezberdinetan izan.

**Donostia, 2019ko urria.**

**GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA**

**-Lehendakaria-  
Juan Luis Larrea Sarobe**